



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA

OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

## 2024/2025 LAN URTE PASTORALAREN HASIERAN

Donostian, 2024ko irailaren 19an

Elizbarrutiko eliztar maiteok:

Ekin diogu lan-urte berriari. Poz handia dugu lan-urte hasiera honetan, gure anaia Borja Prieto Esnaola, izatez urretxuarra, apaiz ordenatu ahal izango dugulako eta Beterriko artziprestaldean dagoen “Salbatore” Pastoral Barrutia osatzen duten parroketako parroko izendatuko dugulako. Lan-urte berriari ekitean, gure kristau-elkarteen ohiko jarduera berriz martxan jartzeko garaia iritsi zaigu eta, agian, baita proiektu berriak amesteko ere.

Lan-urte honetan, Jubileu urtea bizitzeko deia egiten ditu Eliza Unibertsalak, 25 urtean behin egin ohi duen bezala. Egiaz, garai berezia izango da guretzat, gure Elizbarrutia eratu zutela hirurogeita hamabost urte beteko baitugu. Jubileu-aldia 2025eko azkeneraino luzatuko da; egokiera ederra emango digu horrek Elizbarrutian hasi dugun eraberrikuntza pastorala eta misiolaria sakontzen jarraitzeko.

Hona hemen irten honetako lehentasuna: eraberrikuntza-bidean aurrera egitea. Elkarrekin egitekoa da bide hori. Eta horrek egokiera ona emango digu norbera eraberritzeko eta gure elkarteak eraberritzeko, sormenez eta gogo gartsuz. Jubileu-urteko goiburua oso egokia da bizi dugun une honetarako: “Itxaropenaren Erromesak”. Bizi ahal izan dezagula Jubileu-urtean eraberritze hori begien aurrean dugula, gogotsu eta uste sendoz, “huts egiten ez duen Itxaropena” (Erm 5, 5) suspertzeko ilusioz.

Eraberrikuntza-bidean, beste ezer baino lehen eraberritze espirituala da beharrezkoa. Horixe da aurrenekoa, oinarrizkoa. Espiritualtasuna landu gabe, gainerakoa hutsal, arimarik gabe, geldi daiteke. Eraberrikuntza hori gure alderdi guztietan egin beharrezkoa da, erakunde-mailan ez ezik. Jubileua ospatzeak horretara eragingo digu. Fededun bakoitzak du bilatu eta aurkitu beharra nola elikatu etengabe bere kristau-bizitza, gure Elizak garai berri jaierratsua, alaiagoa, bihozkorragoa, ausartagoa iritsi dezan, maitasunez betea azkeneraino eta bizitza kutsakorra. Kristau- elkarteak eskainiko du unerik, gunerik eta baliabiderik horretako. Eliz elkarteak lagun egiten du, bai, baina norberak du bere kristau-bizitza bizitzen eta janaritzen ahalegindu beharra. Garbi ikusten dut, ezin izango dela ezer

ere egin, baldin gure bihotzean Espirituaren sua pizturik ez bada, Espiritua baita, azken batean, Elizaren arima (ik. *Evangelii Gaudium*, 261). Eraberritzea, izan ere, beste ezer baino lehen, espiritualki eraberritzea da

Eraberritze-bidean aurrera egitea eta espiritualtasuna lantzea lehentasun dugularik, ahaleginak egiten jarraitzea nahi nuke gazteei kristau-heldutasunerako bidean eta bokazioa aurkitzeko bidean lagun egiten. Elizbarrutiko gure elkartean etengabeko kezka izan behar du horrek, eta Gipuzkoako fededun elkarte osoaren konpromisoa. Atergabe egin behar dugu otoitz, eta balioztatu, bizkortu, babestu eta bultzatu gure neska-mutilen parte hartzea beraienez antolatuko diren ekintza berariazkoetan, baita kristau-elkarteen gainerako ekintzetan ere. Bidelagun egokien bila gabiltza, eta gazte- eta bokazio-pastoraltzarako egitasmo bateratua egiteko oinarriak jartzen ari gara. Datorren urteko udan, uztailaren azken aldera, Elizbarrutian nahi izango duten gazte guztiekin parte hartuko dugu “Gazteen Jubileuan”, Erroman, Frantzisko Aita Santuaren ondoan. Egin ditzagun eginahalak elkarrekin ekintza hori bultzatu eta sostengatzeko.

Adiskide maite hori, nire gonbidapena luzatzen dizut Borja gure senidea apaiz ordenatuko dugun Eukaristia Nagusira joan zaitezten. Ospakizun honekin hasiko dugu, ofizialki, Elizbarrutian 2024/2025 lan-urte pastorala. Urretxuko Tourseko San Martin parrokiaren izango da ordenazio-ospakizuna, irailaren 29an, igandez, arratsaldeko 18:00tan. Ospa dezagun eta sendotu geure fedea, Jaunaren mahaian elkarrekin parte hartuz. Dei berezia egiten diet Elizbarrutiko apaizei, aldare inguruan gurekin bil daitezten. Egin dezagun otoitz sutuki Borjaren alde, aurki gure presbitero berria izango baitugu. Bedeinka dezala Jaunak eta lagun izan dezala beti bere zerbitzuan. Gogoan zaituztet nire otoitzean.

*In Corde Matris,*

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**  
*Donostiako Gotzaina*